

JULIO CARO BAROJA'RI EUSKAL OMENALDI BEREZIA

Antonio Maria Labayen

Nire ezjakiñerako oso lan gaitza eska didate R.I.E.V. aldizkariaren adiskideek.

Alegia, CARO BAROJA jaunari egin nahi dioten omenaldi merezirako zerbait idatz dezadan.

Norbait jakintsu ta liburu gaietan gure artean neurritz gain bizi baldin bada, hixtoriagille ta letragizon asper eziña JULIO CARO BAROJA dugu. Eta ez nola nahi ipui ta utsekeri kaskarretan jantzia. Horrengatik zail egiten zait erruz argitara dituen liburu ta kondaira egilleari taxuxko zerbait opa ta eskeintzea.

Aspaldidanik JULIO CARO'ren irakurle nazute. Eta dudamuda ta zalantzan egon ondoren gogoko zaidan: *“LOS VASCOS Y LA HISTORIA A TRAVES DE GARIBAY”* haren liburutik hartuta lerro batzu bururatzea gogora etorri zait.

Ez lan luzegirik egiteko agindutzat eman didate, baiña utsegite bakoa egitea ez zait errez izango; alaz guztiaz emandako hitza betetzera nohakizute.

JULIO BAROJA'k Garibay buruz zekiana arrigarria da benetan; eta geroztik zenbat zor diogun Arrasate'ko seme izan zen gizon eta hixtoriagille ospetsua ezagutzeko aitor beharra dugu.

JULIO CARO erudito bete-betea dala guztiok dakigu. Idatzi ta argitara dituen larogei inguru liburuak agertzen digute ta irabazi ta jaso dituen sari ta goi-aipamenak (1): Academia de la Lengua española; Euskaltzaindia; Príncipe de Asturias, ta antzeko biltzar kide da, eta azkenik R.I.E.V. ots! euskal jakintza guztietan biltzarkide! Esku oneko marraskille dala ez da gezurra.

Alabaiñan, hitz alperrak alde batera utziaz Julio Baroja'ren liburu aberats den: *“LOS VASCOS Y LA HISTORIA A TRAVES DE GARIBAY”* xehetasun

(1) *Azkenik Letras Españolakoa* zorionak berrizera adiskide.

zenbati harturik berresaten joango natazizute guztiontzat erakusgarri izango zaizkigulakoan.

As gaitzen bada!

Esteban Garibay Zamalloa 1533 urtean jaio ornen zen. Etxe apal eta otxanean, hain zuzen. Gurasoen arras esanekoa, Fededun eta erlijio zale beti. Felipe bigarrenaren denborakoa izanik menpeko leiala izan zitzaion beti. Gipuzkoa garai hartan nola zegoen sakabanatua erakusten digu. “*Zertan*” edo zertzaiak zeritzaien alderdietan. Orduko ibaien izenak: Oria, Deba, Urumea, Araxes, Bidaso, ta beste zenbait erreka txikiagoak, Lurralde izenez esan da: Goyerri, Beterri, Kostalde eta abar. Oraintxe entzun ohi diren alatsu. Herrien izenak, alderantzian oso ezberdiñak ziran; Hara nola: Bergara (Ariznoa), Azpeitia (Salvatierra de Iraurgi), Villagrana (Zumaya), Belmonte (Usurbil), Orio (Villarreal de San Nicolas) Azkoitia (Miranda), Renteria (Villanueva de Oyarzun), abar eta abar! Oi naspilla! Eskribau ta errege ordezkariak jartzen zutena. Gaitz erdi Garibay’en jaioterriaren izena “Arrasate” ez zutela orduan aldatu. Gerora bai *Mondragoy* izena eman zioten, burni langille gizon “ferrones” deituak. Tolosa’n errementari izeneko kalea ba dugu oraindik. Arrasate’k gaur hartu duen lantegi ospetzuena izena ez luke Garibay’ek sinistuko. Zurgin eta arotz edo errementari izenok nastutzen dira gure artean, guztiok “horno faber” izanik.

Julio Caro Baroja mutil gaztea, Madrid’en jaioa izan arren han leia zen ikasketa gehienak egiten eta etxeko giroan ondo ezituta laister idiki zitzaizkion Unibersidadeko ateak. Ez zen kalez-kale ibilli ohi den hoietakoa. Han erbesteetan Euskalerrria obeto ezagutzeko gogoia piztu zitzaion. Biztanle ta herrien izenak gogoan har zituen. Ez bakarrik antziñako Geografia izenak, Arkeoloji ta etnografiaren zaletasuna buruan sartu zitzaion eta irriki ta griña hori berekin darama egundaño. Ez da gaur goizeko atxikimendua... Orain berrogei ta hamar urte pasatuxeak 1931 garrenean hain zuzen J. M. Barandiaran eta Dr. Telesforo Aranzadi maisu zituela Bizkai’ko Karrantza miaketa ta lur azterketa egitera etorri ziren. Eta Enkarterri lur haietan jardun ziren. Julio gazteak Unibersidadean ikasi ez zuena barrura sartu zitzaion. Eta esatera ausartzen naiz ez ote zitzaion orduan sortu euskaldunganako maitasuna.

Arrasate’ko seme Garibay ezagutzeko ta aintzat hartzeko ez zion kalterik egingo behintzat. Nik uste!

Nun egin Arrasate’n bezain altzairu gogor eta buruz langille ta gogorrigo izan zen Garibay añakorik?

Julio Caro’k gerora ikusi du Udala ta Anboto mendiak añakorik, meatz eta urez aberatsak oberenetakoak direla; eta Garibay’en adimena eta lan beldur ezak España’ko hixtoriagille gehienak puskatu zituela, Alfonso X garrena barne... Nork bestela *XL liburua izugarri* “*Compendio Historial de las Crónicas y*

Universal Historia de todos los Reinos de España” moldatzea buru-belarri ta aspertzeke leia?

Beraz Garibay hixtoriagille haunditzat jo behar ezta harritzekoa Julio Caro Baroja'k auta baldin ba'du bere liburu “LOS VASCOS Y LA HISTORIA A TRAVES DE GARIBAY”.

Eta honako hau bere luma motz eta amotsa erabiltzea behartzen ba'du. Nire utsegite ta gaizki esanak ez al du iñor ikaratuko.

Beste gizon haundi askorekin gerta ohi zaigunez Garibay en izena ea azturik geneukan.

Fausto Arocena, Etxegaraitarrek eta antzeko idazleek esandakoaz gañera ezer gutxi gorapaitu genuen arrasatetarra. Horregatik Julio Caro Baroja'ren merezimendua aipagarriago zaigu haren liburuan bere izena gure gogora ekarri digunean. Lehenengo agertzen zaiguna da Garibay Felipe II errege estu ta altsuaren menpeko leyalala izan zela.

1522 eta 1583 bitartea euskaldun ikasientzat. Batez ere erderaz trebe ta luma erabiltzen artetsu ziranentzat Iziar J. durangoarra bezala errez zituzaten jaun haundien sekretaritzak bereganatzea. Cervantes Mantxako Quijote'ren egilleak erdi irrika esaten digu irakurri ta *idazten jakin ezkerro ta gañera euskaldun* Emperadore beraren sekretario izatera iritxi litekeala. Garibay jaioteritik atera behar izan zuen erbestean etorkizuna billa. Gurasoek hill zitzaizkiolarik ta bizima ikastera erbestera eramane zuen: Salamanca, Madrid, Toledo, Sebillara. Ez egurastera lan egin eta ikastera baizik. Artean ezkondu ta alargun bizitza ezagutu zituen. Seme-alaben aita zer zen jakini. Nola nahi beti eleiz-gizon, apaiz, praile ta obispo adiskidetzat har zituen. Ez zuen betarik galdu ta nork daki liburu ta agiri zaharrek irakurri ta aztertzen zenbat urte ta ordu lan horri egunero opa zizkion, benetan hixtori gaietan jakintsu haundi bihurturik. Kontakatillu asper eziña deitu genezaioke. Naiz maizko Kastilla aldean bizi izan ez zeuzkan azturik Euskalerriko gertakizunak Antzinako Lope de Salazar, en denborako eraiketa, odol-ixurte ta burrukak zehatz-mehatz zekizkien; eta orobat Aramayo ta Mondragoy arteko ixkanbilla, gudate ta errealdiak. Nola ahan-tzi bere aurtzaroko Monterron eta pareko jauregiak? Arantzazu'ko praileekin izan zituen asarre ta auziak. Bainan, ala ere Arrasate'ko prantsiskotarren eliza bere bitartea eraiki arazia zutik dirau oraindik eta Garibay zanaren beste aztarren asko ez dira sekulan galduko. Nor izan zitekean aldi hartan “*Compendio Historial*” ea berrogeitamar liburu mardul idazteko diña?

Horrenbeste lan egin ondoren; aleunka horri ta agiri zarrak irakurri ta murgildutabizirik ez du iñor harrituko Garibay nekaturik, eri ta gaixorik arkitzen aski zen osasunez makal ogea egotea beharrezko zitzaion atsedean hartzeko. Ez zen aitzekia, ez ta sendagilleen aginduz Arrasate utzi Españia barrura aldatzea erabaki zuen. Toledo bizi lekutzat gogoko zitzaion eta haruntz abia zen sendi guztiarekin. Baiñan Kastilla'runtz aldatze horrek ba zuen beste

arrazoi berezia. Madrid hiri nagusia urbil zuela eta esanik daukagu Garibay Felipe II errege altsuaren gurtzaille itsua izan zela. Haren inguruan bizitza atsegin zitaion... eta beharrezko. Bere asmoel aurrera aterako bazituen. Asmoa nagusia Erregeren kronista ala kontu emalle izatea. Felipe II garrenaren txango guztien berri ondotoxoz zekien. Madrid'en zituen adiskideek laguntza eman zioten Erregeri esanik ea berrogeitamar liburu haundiko "COMPENDIO" idatzirik zeukala 1596 urtean eta egilleak oraindik 33 adinez besterik ez izanik. Eta honela Garibay izan zen "kronista" izendatua. Gauza bat garbi zuen: alegia Gipuzkoan izkillu ta burni langilleek ez ezik letradun gizon argien sor leku zela. Giputzak oso arto bere alde ipiñi zituen, batik bat itsas gizonak, Dirua ere sortu zen bitarteko; eta euskaldunok garay hartan genituen eskubideaz baliaturik Garibay ataka hartatik irten zen, gero ikusiko dugunez beste haundiagoa batean sartzeko. Alkatetza laga zuen noski. Hainbeste neke ta urten anitz buruan osatu zuen "COMPENDIO" sinisgaitza egin eta gero zaillagoa zen orain-nunbait argitaratzea. España'n ez behintzat. Gure Garibay eragozpenak ikarutzen ez zuelarik, Bilbo'n itsasoan sartu eta Frantzian barruna gaur Belgika'n dagon Anberes hirira iritxi zen. Txango luzea, ziñez eta nere uste apalean Felipe II bigarren aholkuz egingo zuena.

Europa erdiko jabe zenak hori ta gehiago jardun zezakean eta Garibay urte luzeetan burututako Hixtoria aberatsa nola galtzen utziko zuen bada?

Amberes'en bizi zen bertan lan egiñez PLANTIN inprimatzaille ospetsua. Gutenberg bera atzean utzi zuena. Hain zen ospetsua RUBENS margolariak irudi eder batean oroigarritzat laga diguna. Millaka paper eta orritxo bere tramankulu ta tresnetan garbi atera zituen. Ezagunena BIBLIA REGIA ta Biblia ta Ebangeliotatik aldatuako.

Julio Caro Baroja ondotoxo dakizki xehetasun hoiek bere familiakoek: Aiton, aita ta abar lantegi hortakoak bait dira. Pozik aipatzen dizkigu guztiak eta baita ere lantegi hortako eragozpenak. Garibay izango zituen zailtasunak siniskoak dira: batetik lanaren luzea! Ite- siniste- liburu haundi; bestetik pran-tsez izkuntzara itzuli beharra; okerrak zuzendu, paper eta tinta neurritz erabil-tzea; berunezko izki txikiak beren lekuetan jartzea abar eta abar. Esteban Garibay gazteak bere gain amaika amorrazio ta buru auste izango zituen lo egiten lasa utziko ez ziotenak. Eskuz ta paper zaharretan lertu ta gero zoz imprimategi ola baten zikinkeria ta zikin artetik liburu garbiak ateratzea. Behin baño gehiagotan langillekin asarretuko zen eta paper zurietatik noizbait liburu txukunak ikustea pozgarri izango zitaion. Ez gutxiago PLANTIN inprimatzaille nagusia. Gehiago jakiñik 1571 urtean AMBERES hiria izurtez larri kutsurik zegoela.

Julio Caro Baroja'ren iritzi eta horrela aitor digu liburu ederrak irten zirena. Erdian Garibay egillearen irudi ta guzti. Orduan doidi-doi 36 urtekoa adinez.

Ez genuke sekulan amaituko Julio Caro Baroja'k Garibay buruz esaten dizkigun guztiak emen aita behar bada. Beti oso goyan jartzen digu gizon jakintsu, on xalo ta zuzen bezala. Akats txiki bat ezin aipa gabe utzi, alabaiñan.

Diruz urri, behartsu ta zuzena zela. Nola orduan Amberes'en moldatu arazi zuen "COMPENDIO" tantai hura ordain du zorretan sartu gabe?

Urrengo atalean ikusiko dugu.

Egoki aukera du Julio Caro'k Garibay hixtorigille apartaren eginkizuna. Marka guztiak puska zituena. Gai danak ikutu zituen eta gaur Folklore deritzana ez zuen bazterrean utzi. Ezagunenak bakarrik aitatzea ba nijokizute orrialdea osoa errez beteko nuke. Zeñek ez ditu entzun ala irakurri garay harteko eresi edo bertsoaldiak?

Oñetako lurrau jabilt icara
Martin Bañez Ibarretan il dala
Erreko dot Aramayo guztia!

Era hontakoak erruz arki daitezke Garibay'en kondairan batzu benetan zirraragarriak, honako hau bezala:

¡Zer da andre erdiaren zauria
sagar erra ta ardao gorria.

Beste leku batean dio; arrokeriz betea:

Verba orren verba gazia
Verba horrek ez dakiola balia
Dardoak egin arren verealdia
Olaso da ene egoteko alxia.

Era hontan amaitzeke jarrai nezake baiñan ez larregi luzatzeagatik Tolosa aldean ezagunako diren bertsoaldiak mintzatzen amaituko dut. Bata gure Domenjon de Andia tolosararen omenez:

Sagar eder gezatea
gerrian ezpatea,
Domenjon de Andia
Gipuzkoa'ko erregea.

Eta nik mutil koskor nintzela euskeraz lehengo entzun nituen bertsoaldi ezaunak:

Milla urte igarota
Ura bere bidean.
Gipuzkoarrok sartu dira
Gazteluko etxean.
Nafarrokin batu dira
Beotibarre'n pelean.

Azkenik gauzarik zailleena geldi zitzaion Garibay gizarajoari: Plantin'ek molda zizkion liburu "mandoak ordaintzea". Ez du iñon Julio Caro'k esaten zarpean geldi zenik. Nekez, bederen eta ene irudiz Errege ta Flandes'ko haundikien sakelak lagundu ziotelarik zorrez garbi geldi zen. Beste arazo larri bat erabaki beharra bere gain zuala ordena: Liburu "mando haiek jaso ta sakabatea". Iru sailletan bildu zituen. Bat Flandes'en gelditu zen; eta beste biak Bilbo'ra bidaltzeko asmoz, itsasoz naski. Hau eginda gero berak ere 1571 urtean etxeko bidea hartu zuen. Ez alajaña Bruselas'en egin zituen adiskideek agurtu gabe... Hainen artean Jesuitek zituen lagun begiko; eta Paris'en ere alditxo bat egiñez Españiruntz abia zen. Ez zeukan antzirik Aita Mariana Toledon bizi zena lagun bikañenetakoa zuela. Bidez-bide zetorrela Caro Baroja'k digunez gaizkille zenbaiten eskuetan eroria ornen.

Frantzia'ko erregeari jakin arazi zioten eta alare nozbait Bayona'ra Euskal-erri mugara eldu zen eta bihotza lasatuko zitzaion. Caro Baroja'ren kondaira ez da emen bukatzen zuzen ala zeharka albiste jakingarriak erruz dakarzkigu.

Garrantzizkoa izan daiteke Garibay andik aurrera Euskalerritik kanpora bizitzera joan zela. Haren "Compendio" Hixtoria zabaltzen joan zen eta orobat izen eta ospea.

Garibay animaren indarra, amets eta esakundeak jakintsu ta jende xeharen artean ezagun egin ziran, beste munduko ipuiak bai ziran. Garibay'ek Arantzazu'ko Ama Birgiñari zion arreraz gañera Felipe II zuen beti jainko txiki.

Lehenago esan dizueten danez Toledo ta Madrid izan zituen luzaroan bizi-leku. Obispo Apal eta praille gallenenak izan zituen adiskide. Aberastasunez beti murrizt apal eta otzan bizi izan zen. Arrasate'n 1533 urtean sortua 1599 urtean Madrid'en hil zen eta jaioterrian Mondragoy'en ehortzirik dago. Garibay Toledo'n bizi izan zen denboran Greko margolari ospetsua han zebillen lanean eta biok Felipe II morrontzan elkar adiskide izan zirala suma daiteke, naiz biok langintza ez berdiñean jardun.

Mundo hontako biztanleak oso aztukor gerana edozeñek daki. Gizon eta haundikien artean bizi izanagatik errez txokoratzen ditugu. Honelako zerbait gerta zen Garibay argidotarrarekin. Ez dut esango hil da gero hartaz iñor gogora ez zenik. Baiñan zerbait bazterturik geldi zela. Bia eta urte luzeetan. Gaur harrizko oroigarri, kale izen eta beste zer nahi oroigarri arki daitezke ta haren zenbatik esakunde zaharrak: Gonzalo Moro, Tati tati.

Guztiok gaztegaztetandik. Iñoiz parregitea ez dago gaizki! Nola nahi Garibay beti dago bizirik. Aski zaigu J. Bilbao bibliografoak ausarki bildurik daukan lanak aitatzea. Ez nohakizute guztiak aitatzea. Irakurri gura litukeanak aski du haren enciclopedia irakurtzea. Nere jakituri urriari dagokionez Julio Caro'ren liburuari laguntza eskatuko diot: "*Los Vascos y la Historia a través de Garibay*". Eta egizkoena Arrasate'ko San Franzisko eleizan dagoen harri losan diona:

“En la quietud de este
 convento a cuya fundación
 y mantenimiento tanto ayudó;
 quiso descansar hasta la resurrección
 Esteban de Garibay
 Zamalloa.
 (Mondragón 1533-Madrid 1599)
 alcalde de Mondragón,
 Hijo preferido de la villa,
 cronista real,
 Familiar de la Inquisición
 R.I.P.
 El Ilustre Ayuntamiento de
 Mondragón, con motivo de
 la investigación realizada
 le dedicó esta lápida
 en la Navidad de 1963.

Luze litzake Julio Caro'k dakien guztia nai laburrean esatea baiñan gizon jakintsu, hixtoriagille zintzo ta antropologian et beste jakintza askotan ikasia esker oneko itzak eskeni beharko dizkiogu. Eta beste orrialde baterako utziko ditugu azken hitz bezala gogoko eta itsegin izango zalako ustez.

Nere perpausa aspergarriak irakurtzeko egongarria izan duen norbaitek galdegin nezake ea zergatik aurrez-aurre, eskuz-esku jarri ditudan. Garibay eta Julio Caro Baroja, alegia, ez losintxaz noski bakoitzari berea emateko baizik. Garibay'ek aspaldi jaso zuen bere saria. Orain Julio Caro Baroja'ren txanda da.

Horretarako R.I.E.V. aldizkariak dei egin digu. Jakin-gose zenbati nola egin nuen aukera esan beharko diet.

Laister esango dizuet. Orain irurogei urte inguru eta oraindik bizi gaituzu, Jainkoari esker emaztea ta biok ezkonberri ibillaldia egitera abiatu giñan. Amberes'era eldu giñan eta hango bazterrak ikertzen ibilliz Plantin'en museora sartu giñan. Han paper zahar askoren artean zintzilik txoko batean orritxo bat ikusi genduen. Gai atseginezko bertsoaldia zen prantzesez idatzia, baimenez erosita gerorekin etxera ekarri genduen, norbaiti eskeintzeko asmoz.

Uste gabe egun batez adiskide bati eskeni genezakeiola. Esku erakutsi apal hau gaur omenaldi antzo Julio Caro Baroja eskeintzera ausartzen naiz. Behar bada liburu ta jakituriz betea dagon hixtoriagille ospetsuak ez du ezagutuko eta.

Prantzes samurrez idatzitako bertsoaldia da eta dagon eran R.I.E.V. ez duela eragozpenik jarriko.

Honela dio hitz neurtuz sumaturiko bertsoaldia:

Ezer kendu barik honela du hasera:

Avoir une maison propre et belle
 Un jardin tapissé d'épaliers odorants,
 Des fruits, d'excellents vins.
 Peu de train, peu d'enfants...
 Posséder seul sans bruit
 Une femme fidele.
 N'avoir dettes, amour
 ni proces ni querelles
 ni de partage à faire avec ses parents.
 Se contenter de peu
 n'esperer rien des grandes.
 Régler tous se desseins
 sur un juste modele.
 Vivre avec franchise
 et sans ambitions.
 S'adonnet sans scruple
 a la dévotion.
 Dompter les passions
 les rendre obéissants
 Conserver l'esprit libre
 et le jugement fort.
 Dire son chapelet
 en cultivant les entes...
 C'est attendre chez soi
 bien doucement la mort.

Ezin uka daitekena da bertsoaldi horren egillea zentzuz betetako gizona zela ta olerkari biribilla ez da prantzes izkuntza oberenetan hain gogoeta sakonik asmatzea gauza errezik. Prantzes izkuntza ta bai plantin, Garibay ta gure Julio Caro Baroja'ri dagokiena eman diegularik, euskal idazle motel et bertsogille okerrago dan honek azken zortzikoa bederen euskeraz itzuli ditu asmo zuzen eta bihotz sutsuz ohikatuz:

Griñak menperatu esaneko bihurturik,

Gogoa azke atxiki, erabakiak sendo eta azkenik:

Norberaren etxea eztiki heriotza itxoin.